



ARTISTIKOA: 80 URTE ONDOREN

2017ko apirilaren 25ean

HIKA
TEATROaren
proposamen
artistikoa
2017ko martxoa

1. PARTE HARTZAILEAK

AKTOREAK: Jose Ramon Soroiz, Miren Gojenola, Nerea Elizalde

MUSIKARIAK: Iñaki Dieguez (esku-soinua), Pello Ramirez (txeloa)

ABESLARIA: Beñat Achiary

DANTZARIAK: Oinkari Dantza taldea (Juan Urretabizkaia eta Izar Aizpuru)

AKTORE/DANTZARIA: Agurtzane Intxaurreaga

ARTISTA MARGOLARIA: Jose Ramón Amondarain **ABESBATZA:** Easo Abesbatza

(18 ume)

AIZKOLARIA: Arkaitz Lizarralde

JANTZITEGIA eta ATREZZOA: Xabi Mujika

SOINU BANDA: Iñigo Telletxea

SOINU DISEINUA: Mikel Fernandez

BIDEOA: Iker Ugalde

ARGIEN DISEINUA: Xabier Lozano

EKOIZPENA: Asun Etxeberria, Amaia Kerexeta

ZUZENDARITZA ETA GIDOIA: Agurtzane Intxaurreaga

2. ESKALETA-GIDOIA

ARGI zenital hotza bakoitzaren gainean.

EMAKUMEA- 1937ko apirilaren 26a. Astelehena. Eguna argitzeagaz batera altxa(T)u naz, jakin barik gaurkoa ez dala egun ohikoa izango. Gaur hil egingo naz. Eta neugaz batera beste 1653 pertsona hilko dira, gehien-gehienak herritarrak.

GIZONA (aitite)- Alemaniar eta Italiar hegazkinek Francoren aginduei men eginez, herri hau suntsitu egingo dute.

NESKA (neskatila)- Gernikak negar egingo du. (eskusoinu txikia eskuetan?)

NESKA eskusoinua jotzen hasiko da eta hari IÑAKI DIEGUEZ lortuko zaio.

Haiseran Melodía tristea dena, gero argituz joango da.

ARGI aldaketa. Beroa.

MUSIKA entzuteaz batera, LEIHOA eta ENBORRA erdiratuko dira. EMAKUMEA leihora hurbilduko da. AITITE enborraren albora. EMAKUMEAK LEIHOA ireki ostean, eguna nola datorren begiratuko du.

EMAKUMEA- Leihora hurbildu eta hazearen epela senti(t)u dot. Egunaren lehen argia. Gure aitaren aretxaren babesa. Guztia beharko dogu barren hauek lasaitzeko. Jesus! Gerra madarikatu hau hasi denetik begiak ezin bilduta nabil. Nire gizona, gure Jose Mari, Ibaizabal Batalloilan da gudari. Tarteka etorri izan da, baina Durangokoa eta gero gauzak sano nahastuta dabiz eta zer gura dozue esatea... beldurrak ez doste bakerik emoten. Mamuak edonon ikusten dodaz. Baina tira, gaur be egunak argitu dau eta bizi egin beharko dogu. Bizi!

(Musika amaiera)

Leihotik aldendu eta aitarengana hurbilduz.

(Baserri ta natura hotsak: haizea, oiloak, txakurra...)

AITITE- Egunon Pilar

EMAKUMEA- Bardin aita. Herriraino noa, asteroko arraziñoa hartu gura dot eta bide batez Jose Mariz zeozer jakiten ahaleginduko naz.

AITITE- Askorik ez tardatu.

EMAKUMEA- Ti-ta ingot buelta, lasai. Arandiatarrenera joan behar dot maindireak lisatzera eta gero bedarra egin beharko dot.

AITITE- Zoaz arin. Gaur astelena da. Hilaran itxarotea tokauko zaizu.

EMAKUMEA- Banoa ariñeketan

AITITE- Kontuz joan.

EMAKUMEA- Esne zopak su gainean daukozuz. Zeozer ekartea gura?

AITITE- Berri onak baino ez.

Elkarri begiratuko diote, konplizitatez.

EMAKUMEA- Ane!

NESKATILA agertuko da.

NESKATILA- Zer ama?!

EMAKUMEA- Gaur etxean. Ez dot eskolara joatetik gura.

ANE—Bai, ama!

EMAKUMEA- Ez ba. Herrin zer diñoen ikusi artean ez behintzat. Eta leihoak zabaldu! Ez ahaztu!

Neskak hitz egingo duen neurrian, irrtiaren hotsa ere entzungo dugu

NESKATILA- Bai, ama! (*publikoari*) Leihoak zabaldu! Gure etxean leihoak zabaldu dagoz beti. Ama ito egiten da zarratute badauz. Batez be aita ez dagonetik. Gerrara joan da beste aita batzuekaz. Ordutik leihoak banan-bana zabaldu egon arren be, etxeko giroak antzik be ez dauka. Lehen kontuak kontentan genduzan supastarrean, orain kontuak irrtiak, kontetan doskuz eta gehienetan ez dira ama eta aititeren gustokoak. Halakoetan amaren sendabelarra errosarioa izaten da. Apenas barrerik egiten dau. Horrela ezin da bizi. Aitak ez leuke gura, ze gure aita beti dago barrez eta kantuan, ezta aita? Aita, entzuten badostazu, kanteizu zure kantatxue, ama konkistetako plazan kantau zenduna.

AITA- (BEÑAT ACHYARI) *Kantu alaia. "fandagoa" (edo beste bat)*

OINKARI (bikotea)

NESKATILA AITITE *erengana hurbildu da.*

NESKATILA- Aitete, amak esandako guztie in dot, oiloak eta behiek emonda, azpik aterara, aurrautzak jasota eta leihoak parez pare zabaldute. Eskolara noa.

AITITE- Gaur ez. Amari ez diozu entzun?

NESKATILA- Joe. Zer ba? Gaur kanpaiak ixilik dagoz. Bego ikusi gura dot! Ez dabil ondo!

(aparte publikoari)

Bego nire lagunik onena da. Neskame bialdu eben pasa dan urtarrilean Durangora. Ez dakizue ze pena emon eustan. Ikarak hartuta joan zen eta ikarak hartuta itzuli be bai. 31ko bonbardaketaren ostean etxera ekarri dabe. Gaixoa! Durango moduan Gernika bere bonbardeatuko daben beldur da. Bonbardeatu? Zergatik bonbardeatuko dabe hau? Guk ez dogu ezer txarrik in. Orduan zer pasauko jaku ba? Esaten dautsot nik.

AITITARI *muxu eman eta badoa.*

NESKATILA- Gero arte aitite. -Zaindu aretxa

NESKATILA *badoa.*

(Haize txikia)/ sukaldea hotsa/ ardi taldea/ emakumeak barrezka, xuxurloak...)

AITITE- AITITE- Jakingo bazenu! Aritza bera da ni zaintzen nauena, maitia. (*publikoari*) Gorputz eta arimaz. Zenbat bizipen bere adarretan gordeta. Hara! Han puntaren puntakoan birraitona Sebastian dago, berak landatu omen zuen aritza hau bere lehenengo semea, gure aitite Boni, jaio zenean. Jenio biziko gizona zan gure aitite Boni. Bai horratio! Beste hark, ordea, amama Josefinaren usaina dauka. Talo usaina. Amatal

urdinarekin, sukaldean sartuta beti. Beste aldeko hortan, hor gure artaldea. Aditzen? Berrehun burutik gora! Horko horrek, aldiz, domeketako mus partiden tabakorri errearen usaina gordetzen du sainetan. Eta hor atzeko horrek gure andre difuntaren eta bere lagun koadrilaren briska partidetakoko barre algarak... Jose Mariren kantuak be hementxe goian dagoz. Eta Aneren sekretutxoak, edota alabaren malko ixilak. Hori guztia eta gehiago da aritza hau. Bizitzeko era bat da. Bizitza ulertzeko modu bat. Bizitza bera. Baina orain...

*Kanpaiak joka. **HIRU KANPAI** handitan **kanpaiak proiektatuta. (Kanpai motelak denbora osoan)***

JOSE RAMON AMONDARAIN marrazten hasiko da.

Gertaerak azkar doaz.

EMAKUMEA: Goiza da ondiño. Herriko plazan naz eta kanpaiak joka hasi arren ez dautsiet jaramon handirik egingo.

NESKATILA- Begogaz nago. Kanpaiak entzun orduko arnas eztuka hasi da. Korrika doa babeslekurantza. Ni haren atzetik. Bego, lasai!!!!

AITITA- Aritz honen azpitik, hegazkin bat aditu eta bueltak ematen dabilela ikusi dot. Orduan ni, aritzaren adarrei begira jarriko naiz.

KANPAI hotsak azkartu egingo dira eta lehenengo **EZTANDA** entzungo da. **BELTZEZKO AKTOREAK** kea dariola dagoen **HEGAZKINA** eskuetan

HIRU KANPAIETAN SUA PROIEKTATUTA

EMAKUMEA- Arratseko hiru t'erdia. Izua, hautsa, eta gorpuak nire ondoan. Ane!!! Aita!!!!

AITITE- Oztoak dantzan hasi dira hegazkinen pasaeran. Herio dantza.

LEIHOA JIRAKA

NESKATILA: Babeslekuan bata bestaren gainean gaude. Gatxa da arnasa hartutea. Batzuk negarrez hasi dira, beste batzuk inderka dabiz. Bat batean Bego zelan dagoen ikusi gura dot. Bego! Bego?! Bego ixilik dago. Ahal dodan eran, beragana makurtuko naz. Begiak zabalik daukoz. Aititeren aretxari begira geratuten zanean moduan. Baina bere begiek ez dabe ezer ikusten. Laino handi batek estali dauz.

ENBORRA ETZANDA jarri eta **AIZKOLARIAREN** aizkorada bakoitzean **BELTZEZKO DANTZARIAK** oina gora altxako du. (benetako aizkolari bat erabili ezingo bagenu, irudi hori dantzariak emango du)

GERNIKA txikitzen ari da. GERNIKA erretzen ari da.

SUA eszenatokian. **BELTZEZKO AKTOREAK** *sua darion abanikua eskuetan. DANTZAN., geldo geldo.*

BEÑAT ACHYARI: GARRASI LAZGARRIA

NESKATILA KORRIKA. IHESEAN

AITONAK bizkarra eman eta alde egingo dau. (Alboratu egingo da).

EMAKUMEAK bizkarra eman eta alboratu egingo da.

NESKATILAK korrika jarraituko du.

NESKATILA *ezpalez jositako eszenatokiaren erdian. Hautsita*

MIREN- "Bonbardaketa amaitu eta gero, jendea babeslekuetatik ateretan hasi zen. Hasieran inork ez eban negarrik egiten. Aurpegieta harridura baino ez. Ezin eben ulertu begiekin ikusitakoa. Iluntzean oraindo, ezin zan ezer ikusi 500 metrotik harago. Bazter guztietan zen sua eta kea. Ke beltz eta lodia.

NESKATILA: MAITIA NON ZARA? Kantua.

Kantuaren ostean, PELLO RAMIREZEN TXELOAren doinua.

MIREN- Gernika negarrez hasi da. Malkoz malko.

DANTZARIA EURIPEAN

PINPIX- Malko bakoitzarekin landatuko dogu hazi berria. Malkoz amatatu su lazgarriak. Malkoz ureztatu lur errea. Malkoz asetu maitasun egarria. Malko bakoitza bihurtu bake aldarria.

NESKATILAK bitartean, **LURRA** hartu eta bertan landatuko du **HARITZ** berria. Haren ondoan **LEIHO irekia**

Une honetan, **JOSE RAMON AMONDARAINek** sortutako margolanak, benetako **GERNIKA** margolanarekin bat egingo du.

UMEEN KORUA eta BEÑAT ACHYARI KANTUAN: Sorozabalen GERNIKA. (3´)

PINPIX: "Ez dago bakerako biderik.

MIREN: "Bakea bera da bidea" (Gandhik esana))

NESKATILAK HERRITARRA eskutik hartu eta eszenara hurbilduko du. Gero, **GUTUNA** irakurriko du

NESKATILA:: (Extracto de una carta de Luis Iriondo, superviviente del bombardeo):

Hace 80 años tuvimos una visita inesperada. Muchos de nosotros éramos niños aún y llegaron a nosotros unos hombres de otras tierras, que no nos conocían y a los que no conocíamos. Que ni siquiera nos odiaban porque nada habíamos hecho contra ellos, pero que no nos veían tal como éramos. Porque ellos estaban arriba y nosotros abajo. Si hubieran estado a nuestra altura, todos abajo, hubieran visto que éramos niños como los que había en su país, en su pueblo, como sus hijos o sus hermanos pequeños. Y que las mujeres eran como las suyas, como sus madres, sus esposas o sus novias.

Pero no nos veían así. Posiblemente desde su altura nos veían como hormigas que huían desesperadamente. Y no pudimos hablarnos. Los hombres y las hormigas no pueden hablarse.

Y nos lanzaron una lluvia de fuego, de metralla y muerte. Y destruyeron nuestro pueblo. Y aquella noche no pudimos volver a cenar a nuestra casa ni a dormir en nuestra cama. Ya no teníamos hogar. No teníamos casa.

Pero aquél acto, incomprensible para nosotros, no nos dejó un sentimiento de odio o de venganza, sino un deseo enorme, inmenso de paz. De que aquello no debía suceder nunca más. Y de que las ruinas de lo que fue nuestro pueblo, debía surgir una bandera de paz para todos los pueblos del mundo.

KOADROA eta azken kantua:

Ahapaldi bakoitzeko pertsona berri bat gehituz joango da. Azkenean, DENAK amaituko dute kantuan. DENAK koadroari zuzenduz.

GERNIKARRA (Luis Iriondo?)/ NEREA

Izar uxoeak behar lukete
desioak eskatzeko
eta kaiolak behar lukete
txoritxoak eskatzeko;
jauziak behar luke putzu bat
alde alde pasatzeko
ta ukabilek *harri-orri-ar*
hiru arte kontatzeko;

MIREN

amek ez dute seme bat gorpu
merezi besarkatzeko
merezi dute lasaitasuna
familiaz gozatzeko;

JOSE RAMON

ta hodei batek zero osoa
badauka zeharkatzeko
pertsonek gisan libre behar du
ametsen forma hartzeko

BEÑAT

Bereizketarik gabeko mundu
batek soberan du horma
ez zapaltzaile ta ez zapaldu,
konkistarik ez dagona

DANTZARIAK

ez jatorria ta ez arraza,
bere soilean pertsona,
eskubideak lortzeko era
ez izatea txanpona

DENAK

sarraski batek inspiratutik
egin bada zerbait ona
begiratuta da bakearen
sinbologia sakona
kolore biziz margo dezagun
zuri-beltzean egona
marra bakoitzak eman dagion
elkarbizitzari forma

3. AURREKONTUA

PELLO RAMIREZ MUSIKARIA	500 €
OINKARI DANTZA TALDEA	450 €
J.R. AMONDARAIN ARTISTA PLASTIKOA	1.250 €
EASO KORUA UMEAK	1.000 €
AKTOREAK (3)	1.200 €
BEÑAT ACHYARI KANTARIA	500 €
AKTORE/DANTZARIA	
SOINU BANDA	400 €
IÑAKI DIEGUEZ MUSKARIA	500 €
AIZKOLARIA	150 €
FURGONETA ALOKAIRUA	200 €
JANTZITEGIA eta ATREZZOA	500 €
ZUZENDARITZA ETA GIDOIA	4.500 €
EKOIZPENA	1.275 €
BIDAIK	650 €
IKER UGALDE-BIDEOA	300 €
MIKEL FERNANDEZ-SOINUA	1.200 €
XABIER LOZANO-ARGIAK	1.400 €
ETEKINA	2.000 €
Guztira	17.975 €

4. BESTELAKOAK

Egileari bakarrik dagokio ideia honen zeinahi forma, euskarri edota bitarteko erabilita ustiatzeko eskubideak baliatzea eta, bereziki, erreproduzitzeko, banatzeko, hirugarrenei lagatzeko, publikoari komunikatzeko eta eraldatzeko eskubideak baliatzea; horiek guztiak ezin egingo dira egilearen baimenik gabe, lege honetan aurreikusitako kasuetan izan ezik. Xedaturiko betekizunak betetzen ez badira, eskubideen urraketa lege honen arabera zigortua litzateke.